



Aldudeko ibarrean suharki aitzina



Xabi BIDART
President
Michel OCAFRAIN
Secrétaire adjoint
Valérie LARRONDE
Secrétaire
Catherine OTEIZA
Co-présidente
Maika ALFARO
Co-présidente

AIBA elkarteak Esnazuko Menta jatetxean: Xabi Bidart, Mixel Oçafraïn, Valérie Larronde, Catherine Oteiza, Maika Alfaro eta Helena Laxague



Urkiagako gainetan, lainopean, ardile-moxleak

Bi urtetarik antolatzen dituzte Aldudeko ibarrean ate idekiak (Banka, Aldude eta Urepele). Heldu direnak urriaren 13tik 16ra iraganen dira. Antolatzaileek oraidanik nahi izan dute horren berri eman. Alabainan, dinamika berri batean jarriak dira, beren ibarreko bizia indartzeko asmoz. Orain arte, tokiko komertsant, ofiziale eta laborariek muntatutako ACVA elkartea zen ate idekien antolatzaile nagusia. Elkarte hori izenez aldatu da, ibarreko jende guziaz inplikarazi nahiz. Orain AIBA deitzen da, "Aldudeko Ibarra Beti Aintzina", bulegoa gazteturik. Maika Alfaro eta Catherine Oteiza dira kolehendakariak, Helena Laxague diruzain, Xabi Bidart diruzain-orde, Valérie Larronde idazkari eta Mixel Oçafraïn idazkari-orde.

Herrian laketu

Duela lau urteko ate idekiak "Aldude 2030" lema inguruan ziren antolatu eta duela bi urtekoetan mugazgaineko harremanak ziren aitzinean ezarri. Aurten, "Lurraldearen erakargarritasuna, herrian laketu" gaia da berezikiago landuko. Horri buruz, eta aitzinekoen ildotik, AIBA elkarteak hiru sail badiu abiatuak. Batetik, ibarreko etxe hutsen kondaketa egin ondoan, nola berdinizatu hori guziaz, hots etxe hutsak bete eta biziari. Horren adibide argiena Valérie Larronde urepeldarrarena dugu: herri hortan hetsia zen ostatu bat apailatzen ari du, ondoko egunetan idekitzeko gisan. Bestetik, nolako integrazioa segurtatu kanpoko

jendeari, ibarrean atxikarazteko. Hirugarrenekorik, mugikortasuna sustatu. 2015eko apirilaz geroz, Aldudeko ibarrean proiektu berezi bat eramaki da, araberako egiturek lagundurik: ibarrean dauden garraio motak (edo eskasak) ikertuak dira eta lan berezi bat eraman ondoan, aterabide batzuk proposatu dira, halanola autobus garraio erregular baten muntatzea Urepeletik Donibane Garazira edo Arrosara (Baigorriekin eramana den proiektua), garraio kolektiboak lehenesteko. Azken ildo huntan, AIBA elkarteak joandean ekainaz geroz Priscila Ludovico gaztea enplegatzen du, gauzak aitzinarazteko. Hara hor hiru sail konkretu, aski zailak garatzeko eta denen inplikapena eskatzen dutena.

Ate idekiak

AIBA elkarteak, hori guziaz esplikatzeko Esnazuko Menta jatetxean eskaini daukun prentsaitzinetik landa, Kintoko eremuetara gidatu gaitu, Urkiagako gainetara, Mentako borda sahetsean zaudela ibarreko eta

urrunagoko 25 artzain, 400 bat buruta ardi tropari ile mozten ari, haizturrekin mugatuta. "Artzainen arteko elkartasun hori nahi ginuke ibar osoko jende guzieren artean sustatu eta iraunarazi" daukute erran antolatzaileek. Eta izpiritu hori da ate idekiak bitartez zabaldu nahi luketena. Nahiz eta urte horietan hurbiltzearekin larrazkeneko ate idekien erabilera oso txiki geratu, urte hauetan, hurrengo egun horietako hitzordu nagusien artean izanen diren. Urriaren 13an, Kanalderekin eztabaida gaua Aldudeko Alfaro ostean, "herrian laketu" gaiaren inguruan "Honki jin Xiberoan" gogoeta bultzatzen duen Xiberoko lan taldearekin partzu goan antolatua. Urriaren 14an bi estreinaldiak: Urepeleko C'Val jatetxearena eta Aldudeko Sanoki zingela zaharberriarena. Urriaren 15ean, Alduden kabala lehiaketa, moztu merkatua, elizan Xalbadoren omenez bertu saioa, hunen heriotzaren 40. urtearen gogorakari. Urriaren 16an, Kintoa Kurri ibilaldu Bankan merkatu eta pilota, artzain xalbadoren lehiaketa Esnazun...

Ibarrean bizi

ibarra biziarazi

Aldudeko ibarreko ate idekietan saldoan ibili da jendea, ekitaldi guzietan bazutela kokahala jende. Gure partetik ate ideki horietan egin diren bi estreinaldietara joan gira, ibarraren bizinahia- ren seinale handi zirela iduritu zaikulakoz. Estreinaldi gozoak biak, kargudun eta hautetsi fran-



Xingolaren moztea: Annick Trounday, Georges Labazee, Catherine Seguin, Mixel Dendarrieta, Frédérique Espagnac

go bildurik, Catherine Seguin Baionako andere suprefeta, Frédérique Espagnac eta Jo Labazee zenaturrak, Annick Trounday kontseilari departamentalak, Beñat Arrabit Garazi-Baigorriko herri elkargo burua, inguruko auzapez asko bai eta Euzko hautetsi zenbait.

Sanoki kultur gela, Alduden

Lehenik Aldudeko Sanoki gela berritua da estreinatua. Ez da oraikoa gela hori. 1950 irian Lucy Doiharzabal andereak zuen parrokiari eskaini, sartzeko ate gaineko harri zizelkatuak seinalatzen daukun bezala. Zinegela bezala baliatu zuen parrokiak. 1985ean, haatik, herriaren esku utzi zuen. Eta gaur bigarren gaztetan baten beharra zuela eta, herriak zaharberritzea deliberratu du, kultur gela bilaka dadin. Peio Setoain auzapez ohiak abiatutako proiektua burutu ahal izan du Mixel Dendarrieta gaurko auzapezak. Hunek, eman duen hitzaldian, kondatu dauku hiru hilabetez eraman direla obrak, joanden uztailean hasirik, eta 197.000 euro gasta dutela, Estaduak 54.000 ekarriak, Departamenduak 54.000 eta herriak berak 89.000. Osoki apaindurik eta ekipaturik dagon gela hunek ukanen du enplegu, hain dira ibarrean kultur taldeak kementsu, kantari, antzerkilari eta beste. Eta funtsean, ate ideki horietan beretan erabili du gela berritua "Larrazkeneko loreak" antzerki taldeak. Talendu askoren mintegia dugu Aldudeko ibarra. Oroitaraz dezagun ere gela hortan sortua dela Aldudarrak Bideo, gaur Bidarrain kokatzen dena. "Beharrezkoa da sorkuntza, artea eta kultura herriaren bihotzean ezartzea" (Annick Trounday). "Bizi kulturala, ibarreko bizi soziala eta ekonomikoaren zimendura da" (Georges Labazee). "Ibar hau eredu bat da beste asko eskualderentzat, elkartasun eta lagunarte handiko modelo bat" (Catherine Seguin). Erran gabe doa Jean Etcheverry tokiko apezak gogotik eta



Ostatuaren estreinaldian, Mixel Ernaga, Christian eta Valérie Larronde

boz ozenez benedikatu duela Sano gela berritua.

C'Vall ostatua, Urepelen

Urepeleko plazara heltzean, ezkerretatik, Baigorriko Baleako Sindikatetik berrehala aurkitzen da C'Vall ostatu berritua. Duela guti arte Etxexuria edo maizag Zinkoenea bezala ezagutua. Baina Mixel Ernaga auzapezak erran daukunaz, seguritate araudiak ez omen zuten errespetatzen ostatu-jatetxe-hoteleak. Eta jabeek ez aski dirurik eta kura- raiarik dena berritzeko gaurko arauetara. Zer egin? 2011/2012an herriak erostu zuten Zinkoenea (EPFLaren bidez). Egunerterko gogoeta eramanik, ikustekoa nolako segida eman tokiari, eta ohar- turik finantzamendurik ez zela heldu elkargo publikoetatik, azkenean erostu bikote gazte bat agertu zaio, Christiana eta Valérie Larronde, emazte gazteare erroak Alduden izanki. Bikotea lotu du suharki lanari, eraikinaren pekalde erotik berrituz (ostatu-jatetxe), ondoko hilabetetan lehen estaijan hoteleko gar- barak apailatu nahi litzuzkela (oraindik berr- urteren lana). Emozio handiko estreinal- dia izan da ostatu berrituaren hori jabe- berrientzat. Galde berezi bat bazute haatik hor ziren askok: zergatik fran- tsesezko izendapen hori? Jabeek es- plikatu daukute "C" hizkia Christiane- datorrela, "Val" Valérie-tik, azken "l" ho- Lucie alabatik, izendapen berean fam- lia guzira kokatuz, denbora berean "Va- lée" ere seinala dezakeela. Zinkoene- ez zitzaikun, alta, batere itsusi! Horie- hola, bide on ostatu berriari!